



HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA

FAMILIA ANIZTASUNA

IV. MODULUA

Ikasurtea: 2024/2025
Haur Hezkuntzako Gradua

EGILEAK: Telmo Irastorza
Nagore Irazustabarrena
Nora Labaien
Lia Landazuri
Berenize Lavin
TUTOREA: Izaro Arroitia

AURKIBIDEA

1. Gaiaren hautapenaren justifikazioa	3
2. Familia aniztasuna	6
3. Narratiba sortzeko prozesua	6
4. Talde lanaren hausnarketa	7
5. Narratibatik kanpo geratu dena	8
6. Eranskinak	9
a. Bibliografia	9
b. Narratiba digitalaren transkripzioa	9

1. Gaiaren hautapenaren justifikazioa

Gure sukaldeetatik jaiotako ideiaren fruitua da, bada, lanari lotura bat emateko asmoz, taldeko dei bat egin genuen, eta, dena delakoa arrazoia, guztiok gure etxeetako sukaldeetan aurkitzen ginen. Gure gaia familia-aniztasuna izanik, barrura begiratzeko hautua egin genuen, eta, azkenean, elkarrengandik hain ezberdinak ziren espazio horietan jarri genuen fokoa. Izan ere, gaur egun bizi dugun erritmo hain iheskorren artean, non, egunerokotasuna hutsala bihurtzen den, bada espazio bat bere esentzia bateratzaileari eusten diona, hots, sukaldea. Une batez, atsedean hartu, denbora trukatu eta presente egoten garen espazio komuna izan ohi da. Gure honek asko esaten du gutaz, eta, lau hilabete honetako gauzarik garrantzitsuenetako bat fatxadarekin ez geratzea izan denez, eskainitako aurkezpen-denbora laburrekin, horixe transmititu nahi izan dugu, etxe bateko espazio bakar batean hain denbora laburrean hauteman dezakegun aniztasuna.

Azkenean, txotxongiloen agertoki *txiki handitik*, oihala bat altxatu da, zura eta oihala soilik erakusteaz gain, gure gizatasunaren ispilurik hertsienarekin aurrez aurre jartzen gaituena: familia. Hiru unibertso ezberdin josi ditugu, hiru konstelazio afektibo, beren singularitasunean sarritan ahanzten dugun egia xuxurlatzen digutenak: familia ez da molde bat, organismo bizi, taupakari eta anitza baizik.

Lehenengo eszenan, ama batek, haritz bakartiaren indarrarekin, errutina ehuntzen du, biderkatzen den maitasunean bere sutriak tinko errotuz. Bigarren, bi aita aurkitzen ditugu, ezjakintasunari eta egoera berriari aurre eginez, presentziez ulertzen duen etxe bat eraikitzen. Eta hirugarrenean, aitona-amonen samurtasuna itsasargi eta portu seguru bihurtzen dira, loturek belaunaldiak eta aurrez ezarritako rolak gaingitzen dituztela erakusten duen testigantza gisa. Hiru adibide baino ez dira, halaber, paisaia infinituki zabalago baterako leiho antzera islatuz.

Eguneroko bizitzako lan txiki hauetako bakoitzean, dantza unibertsal bat ikusten dugu, zehazki, denbora bezain zaharra den zikloa. **Harmonia**, ia hautemanezina den arren, barreak eta eguneroko keinuak edertasun xume batez hornitzen dira, dena egokitzen dela dirudien unea azalduz. Goizeko gosariaren usaina da, elkarrizketarik sinpleenak, edo, besterik gabe, espazio eta denbora partekatzearen konplizitatea. “Egoera normala” deritzogu ere, bere itxurazko apaltasunean, altxor bat dena.

Baina, bizitza, bere zintzotasun basati eta ederrean, ez da soilik baretasuna. **Eztabaida** iristen da, zimenduak astintzen dituen beharrezko ekaitza. Eta hemen, gure txotxongiloek lezio iraultzaile bat irakasten digute. Izan ere, batzuek arrazoituz eztabaidatzen dute, hitz zehatzaren bila, argudio indartsuenaren bila. Beste batzuk, ordea, garrasi batean lehertzen dira, eta, urratzailea badirudi ere, ateratzeko borrokan ari den emozio baten adierazpen sutua baino ez da. Aldiz, badira isiltzen direnak, eta haien isiltasuna ez da hutsa, espazio trinkoa baizik, batzuetan mingarriena izan daitekeen epaiketa. Forma bakar bat ere ez da *goragokoa*; loturaren une bateko haustura adierazteko hizkuntza desberdinak dira, besterik ez.

Eta azkenean, baretasuna: **adiskidetasuna** edo kontziliazioa, hots, zauria ixten duen baltsamoa. Berriz ere, familia bakoitzak bere arte partikularra erakusten du. Batzuek hitz bakoitza xehatzeko beharra dute, ñabardura bakoitza aztertuz, bi norabidetako ulermena loratu arte. Beste batzuek besarkada baldar batean edota eskainitako tostadatxo batean aurkituko dute bestearenganako itzulera-zubia. Eta, espazioa aukeratuko dutenak ere badaude, telebista-kanal bat partekatuz gatazkarik gabeko sendatze-isiltasunean murgilduta egongo direlarik. Nor gara gu haien berrelkartzearen partitura epaitzeko? Hain zuzen ere, funtsezkoa ez da metodoa, berreraikitze borondate tinkoa baizik, hau da, esentzian “gu” hori berresten duen definizioa.

Eta itsaso baretik, txotxongiloek beren leziorik funtsezkoena eskaintzen digute: familia bat definitzen duena ez da bere kanpoko egitura, ezta gatazkaren abstentzioa ere; baizik eta, lotura afektiboaren presentzia tematia, erresilientea eta boteretsua da. Kideak lotzen dituen hari ikusezin gisara imajina dezakegu, batzuetan tenkatua, baina era berean elastikoa dena. Azken batean, deklinabide infinituetan agertzen den maitasuna da: zaintza, babesa, errekonozimendua eta kidetasuna, akats eta berezitasun guztiekin, hain zuzen ere, maitatua izatearen ziurtasuna.

Beraz, ez dago eredu gorenagoa den familia idealik, bakoitza bere emozio-fisika lege berariazkoekin, etsenplu ezin hobe baina; eta, gainera, guztiak patroï bakar batean sartzea, giza esperientzien aberastasuna moztea izango litzateke, eratzen gaituen aniztasunaren edertasuna ukatuz. Hortaz, astindu gaitzala txotxongilo soil batzuen mugimendutik jaiotako hausnarketa honek; begiratu dezagun fatxadetatik haratago eta gainditu ditzagun hitzak eta aurreiritziak, entzuteko eta sentitzeko gonbidapena baitugu. Izan ere, horixe da gure lan honen xede nagusia, hots, ikusleari helarazi nahi dioguna: familia bakoitzaren silueta edozein dela ere, oinarritzko berak taiputzen ditu, alegia, maitatzea eta maitatua izatea, elkarrekin eraikitako babeslekutik. Eta, hori, berez, harmoniarik sakonena eta ederrena da.

Ikus entzunekoaren sorkuntzarako, etxebizitza-eraikin bera erabili dugu, zeinetan, kanpotik berdina dirudienak, barnean oso egoera ezberdinak gordetzen dituen; pertsonekin gertatzen den bezala; izan ere, gela berean pareko haurrak ikusten ditugun arren, etxetik dakartena erabat ezberdina izango da, eta banakoa ongi ulertu eta ezagutu ahal izateko, barnera begiratzeko hautua egin behar dugu. Ikus entzunenezkoa izanik, ez gara soilik alderdi bisualean zentratu, hau da, sukaldeen antolakuntza espazial, zein materialez gain, leihotik haratago antzeman zitezkeen elkarriketa, ahots tonu, irratsaio eta musikaren bidez baizik.

Gure helburua ez zen soilik aniztasuna erakustea, baizik eta ikusleak hausnarketa egitera bultzatzea: zer da "normala"? Zer antzekotasun eta desberdintasun daude? Badago eredu edo jarrera hobeagorik? Eta, ondorioz, okerragorik? Guztiek dute lekua gure gizartean? Galdera horien bidez, narratiba honek egunerokotasunean sakontzeko eta enpatia sustatzeko tresna pedagogiko gisa funtzionatzea da helburu. Ikasleek beren istorioak partekatuz, elkarlaneko eta bizipenetan oinarritutako ikaskuntza esperientzia aberasgarria eraikitzen baitute.

2. Familia aniztasuna

Familia aniztasuna egitura familiar desberdinen existentzia aitortzen duen kontzeptua da. Ez dago familia bakar edo idealik; aitzitik, familia askotarikoak existitzen dira, konposizioaren, harremanen eta funtzioen arabera (Sánchez-Prieto et al., 2023). Familia birparental nuklearrak gain, badaude familia monoparentalak, homoparentalak eta bestelako konfigurazioak ere (Triana Pérez et al. 2019).

Hala ere, hezkuntza-sisteman familia aniztasuna askotan ez da behar bezala islatzen. Ikasmaterialek eta irakasleen prestakuntzak oraindik familia birparental heteroparentalaren eredua erreproduzitzen dute, eta horrek familia anitzen errealitatea ikusezin bihurtzen du eskolan (Sánchez-Prieto et al., 2023). Gainera, irakasleen artean oraindik aurreiritzi batzuk daude familia ez-konbentzionalen inguruan, eta familia nuklearrari egozten zaio haurren garapen egokiena (Triana Pérez et al., 2019).

Horregatik, beharrezkoa da familia aniztasuna ikuspegi inklusibo eta ez-patologizatzailetik lantzea, haur guztien errealitateak aitortu eta eskolako bazterkeria saihesteko. Diskurtso pedagogikoek eta hezkuntza-politikek errealitate sozialaren isla izan behar dute, familia guztien aitortza eta errespetua bermatuz (Vercellino, 2017).

Familia aniztasuna lantzeko, txontxongiloen erabilera baliatu dugu. Amorós eta Pariciok (2005) azaltzen dutenez, txontxongiloa elementu plastikoa da, ekintza dramatiko batean pertsonaia izateko bereziki eraikia, aktore titiritero batek manipulatu, ahotsa eta mugimendua ematen diona. Gainera, haur hezkuntzan hain erabilia den baliabide bat izateaz gain, kulturarteko bitarteko eraginkorrak dira, eta mundu osoko haurren bihotzetara iristen dira. Ebaluaziorako, diagnostikorako, aholkularitzarako eta tratamendurako txontxongiloen erabilerari buruzko hainbat azterlan daude (Barbosa & Carvalho, 2018). Hauek, haurren arreta eta kontzentrazioa hobetzen laguntzen dute, eta ikaskuntza-prozesuari lotutako beste onura batzuk ere eskaintzen dituzte: hiztegia zabaltzea, inguruko egoeren ulermena sustatzea, logika lantzea eta memoria garatzea, besteak beste. (Moreira Contreras, B. M., 2019).

3. Narratiba sortzeko prozesua

Narratiba digitalaren sorkuntza prozesu ez-lineala izan da, etengabeko eraldaketaren emaitza. Hasieran, helburua adimen artifiziala erabilia ikus-entzunezko produktu bat sortzea zen, aniztasuna modu bisual eta erakargarrian islatuz eta irudi digitalen bidez mezuari indar emozionala emanez. Baina, esperimentazio eta hausnarketen ondorioz, ohartu ginen adimen artifizialaren bidez sortutako irudiek ez zutela gure helburua betetzen; estetikoki erakargarriak izan arren, ez zuten narratibaren benetakotasuna, gertutasuna eta egunerokotasuna islatzen, eta horrek ikuslearengandik urruntzeko arriskua sortzen zuen.

Azkenean, gertutasun falta gainditzeko, bideo dei batek sukaldea proiektuaren ardatz bihurtu zuen, espazio pertsonal eta unibertsal gisa. Antzezlanaren aukera baztertuz, arte plastikoen baliabideak erabili genituen (txotxongiloak, egurra, buztina, etab.), lan intentsiboago baten bidez narratibari koherentzia eta sakontasun emozional handiagoa

emateko. Behin bideoa eraikita, IKT ikasgaian aurkeztu genuen eta hor konturatu ginen ikus entzunezkoak hainbat aldaketa behar zituela ikusleentzat erakargarriagoa izan zedin. Beraz, berriro ere hasieratik hasi ginen gure ikus-entzunezkoa sortzen, eta azken batean, hainbeste gora-beheren ostean, lortu nahi genuen emaitzara heldu garela uste dugu.

Narratibaren ardatza familia aniztasuna izan da, estereotipoak saihestuz eta eguneroko bizitzan oinarritutako errealitate konplexuak islatuz. Ikuspegi zabal batetik, jatorri, familia-eredu, lan-ohitura, bizimodu eta etxebizitza espazioen aniztasuna jorratu da modu errealista eta errespetuzkoan. Eta, aurretik esan bezala, helburua ez da soilik aniztasuna erakustea, baizik eta ikuslearen enpatia eta ulermena piztea, eta esperientzia honek “ondokoarekiko” jakin-mina eta elkartasuna sustatzea.

Gure xedea, aniztasuna, salbuespena izatetik urrun, guztiok (baita egileok ere) barne hartzen gaituen kontzeptu gisa aurkeztea izan da, non, bizikidetzaren oinarriak emozioetatik eta esperientzia partekatuetatik eraikitzen diren.

4. Talde lanaren hausnarketa

Lan modular honetako talde-dinamika irakasleen eskutik antolatu zen hasieratik. Taldekide gehienok ez geunden ohituta elkarrekin lan egitera, eta hasierako momentuetan ziurgabetasun puntu bat sumatu genuen, taldekideen lan egiteko moduen ezagutza falta zela eta. Hala ere, giro egokia sortzeko eta talde-funtzionamendu egokia bermatzeko gaitasuna izan genuen, eta modu naturalean egokitu ginen talde-lanaren erritmo eta beharretara.

Proiektua abiatzerakoan, lanaren norabidea elkarrekin adostu genuen: taldeko kide bakoitzak bere ideiak aurkeztu zituen, eta proposamen horien artean, guztientzako interesgarria eta pedagogikoki egokia iruditu zitzaigun gaia aukeratu genuen: familia aniztasuna. Dena dela, asko kostatu zitzaigun jorratu nahi genuen kontzeptua ongi argitzea eta barneratzea; eta, hortaz, erronka handiena, atzera pausua egin, eta gai hautaketaren berezko arrazoia egitea izan zen. Izan ere, taldekide bakoitzak lan helburu ezberdinak zituen, eta, beraz, ortzimuga finkatzeko elkarrizketa gehiago edukitzera eraman gintuen.

Proiektuaren amaieran, familia-aniztasuna, harmonia, gatazka eta adiskidetze egoerekin lotu genituen, lanaren haria aldatuz. Izan ere, *Gizarte eta Kultura Igurunearen Ezagutzen* ikasgaian jorratutako gai bat, hura izan zen, gatazka. Irakasleak, naturala eta sahiestezina dela azaltzen zigun, eta horren harira, taldekide batek familia-aniztasunarekin lotu zitekeela pentsatu zuen. Izan ere, naturala bada, familia guztietan gertatzen da? Eztabaida garrasi hutsa al da? Edo, iritzi desberdintasunak dauden heinean gertatzen dira? Gainera, gakoa honen kudeaketan aurkitzen dela azaltzen zigun. Beraz, *gakorik* badago, *modu zuzenik* al dago? Eta, taldekideak, zera pentsatu zuen: *nik nire etxeko gatazkak ezagutzen ditut, eta, badakit nola konpontzen ditugun hauek ere; baina, nolakoak dira hauek besteen etxeetan?* Azkenean, gure gaiarekin oso lotuta egon zitekeela pentsatu genuen, eta, bakoitzaren bizipen pertsonaletatik gidoia idaztea erabaki genuen.

Beraz, esan dezakegu, lan honek ikuslearengan gertutasun sententzioa bilatzen duela; bereziki, taldekide bakoitzaren bizipenak isladatuta daudelako, eta, gure ustez, identifikatuta sentitzeko aukerak daudelako.

5. Narratibatik kanpo geratu dena

Hasteko, familien elkarriketei dagokienez, egia da gustatuko litzaikeela kasu batzuetan zabalagoak izatea, familia eguneroko giroa eta bizi-esperientzia sakonago bat islatzeko. Hala ere, bideoak gehienez hiru minutuko iraupena izan behar duenez, edukia asko laburtu behar izan dugu. Horrek, ez du esan nahi jasotako elkarriketak osatu gabe daudenik edo egoerak behar bezala islatzen ez direnik; baizik eta informazio gehiago sartzea gustatuko litzaikeela, familia horien testuingurua sakonago ulertarazteko.

Horren harira, elkarriketa batzuk oso modu zuzen eta zehatzean egin ditugu hitz gutxirekin familia horretan zer nolako egoera duten ikusi ahal izateko. Hala ere, uste dugu elkarriketa luzeagoek aukera emango luketela egoera horiek modu sotilagoan eta naturalagoan islatzeko, ikusleak xehetasunetan oinarrituta ondorioak ateratzeko aukera izanik. Elkarriketa horiek laburrak izan arren, aurretik egindako lanketa sakonaren emaitza dira, eta esan nahi zutena ahalik eta argien adieraztea bilatu dugu.

Bestetik, familia moten aniztasunari dagokionez, hiru familia aurkeztea mugatua geratzen da ikastetxe batean egon daitezkeen egoera eta egitura guztien isla oso bat eskaintzeko. Jakina, ezinezkoa da familia guztien errealitatea jasotzea, baina uste dugu zortzi edo hamar familia mota aurkezteak aniztasun handiagoa erakutsiko lukeela.

Adibidez, harrera-etxe baten eredu sartzeari interesgarria iruditzen zaigu: bi heldu erreferente eta haur talde bat, guztiak elkarrengandik desberdinak, eta askotan ikusten ez diren baina errealitatean existitzen diren egoerak irudikatzeko. Horrelako ereduak ez dira ohikoak ikus-entzunezko ekoizpenetan, baina askotariko familiarteko testuinguruak normalizatzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkigu.

Halaber, narratibatik kanpo geratu diren istorio edo profil batzuk aintzat hartzeko aukera egon da, baina produkzio-baldintzak eta denboraren mugak direla eta, ezin izan dira guztiz garatu. Hori dela eta, dokumentu osagarri batean edo ikus-entzunezko formatu osatuago batean zabaltzeko asmoa dugu etorkizunean.

6. Eranskinak

a. Bibliografia

- Herrero Llorente, S. (2017). *Los títeres en el aula de Educación Infantil* [Gradu Amaierako Lana, Universidad de Valladolid]. UVaDOC.

- Mármol, R. A. (2019). Teatro de títeres como estrategia para potenciar la atención de niños de 5 años de la Escuela de Educación Básica Isabel Herrera de Velázquez. *Revista Conrado*, 15(70), 370–375.
- Moreira Contreras, B. M. (2019). *La incidencia de las marionetas como recurso didáctico en el proceso de enseñanza-aprendizaje en los niños del segundo año de educación básica de la Escuela Armando Pareja Coronel, del cantón Babahoyo, Provincia Los Ríos* [Gradu Amaierako Lana, Universidad Técnica de Babahoyo]. DSpace UTB.
- Sánchez-Prieto, I., Verde-Diego, C., & González-Rodríguez, R. (2023). La diversidad familiar en los materiales didácticos de educación infantil. *International Journal of Sociology of Education*, 12(3), 231–253.
- Triana Pérez, B., Ceballos Vacas, E. M., & Rodríguez Hernández, J. A. (2019). Expectativas del futuro profesorado de Educación Infantil y Primaria sobre el desarrollo infantil en distintas estructuras familiares. *Aula Abierta*, 48(1), 67–76
- Vercellino, S. (2017). Representaciones de la monoparentalidad y la diversidad familiar en el ámbito educativo. *Revista de Psicopedagogía*, 14(2), Art. e25.

b. Narratiba digitalaren transkripzioa

1. ESZENA

Familia mota: gurasobakar familia; ama, alaba eta semeak osatutakoa.

Idea: eszena honetan, guraso bakarreko familia baten egunerokotasuna islatzen da. Amak lan-karga handia du, eta, gainera, etxeko ardura guztiek estutzen dute: seme-alaben ikasketak, etxeko lanak eta eguneroko antolaketa; izan ere, egoera honek tentsio egoera batera bideratzen du ama, bakartasun emozioz gainezka. Hala ere, seme-alabak pausoa ematen dute eta laguntzeko prest agertzen dira. Azkenean, elkartasunak eta arduraren banaketak familiako batasuna sendotzen dute.

Elkarrizketa:

- HARMONIA
 - Ama: ei, Eneko, gaur azkerketa duzula, ez?

- Eneko: bai ba.
- Ama: ez ekarri beste suspentso bat eh?
- Alaba: ez dakizu ama, benetan, ze zaila dan irakasle horrekin aprobatzea...
- Eneko: hau ateratzen badut ama aste buruan *play* bai ezta?
- EZTABAIDA
 - Ama: jarri mahaia... Bikote, mahaia! Ei!! Ez nauzue entzuten? Ez dit bizitzak ematen! Bakarrik nago dena egiteko eta lanera noa oraintxe, ezin dut aitona deitu beti laguntza eske!
- ADISKIDETZEA
 - Alaba: ama, e.. ogia tostatuta edo horrela ongi?
 - Eneko: afaldu eta gero fregatzea nire kontu. Zenbat arrautza jartzen ditut?

Inguru-zarata: sukaldatzen ari diren janaria, irratia eta seme-alaben musika.

2. ESZENA

Familia mota: familia homoparentala; bi aita eta jaio berriak osatutakoa.

Idea: eszena honetan, familia homoparental baten eguneroko bizitza aurkezten da, haur txiki bat zaintzeak dakartzan erronka eta nekeekin. Hasieran, bikoteak atsedeneren beharra adierazten du, elkar ulertuz eta opor batzuk planifikatuz. Hala ere, haurra negarrez hasten denean, zaintzaren ardura nork hartu eztabaidagai bihurtzen da, bikotearen arteko tentsioa agerian utziz. Nekea, lan-kargak eta eguneroko presioak komunikazio-gatazkak sortzen ditu, baina, azkenik, barkamenaren eta ulermenaren bidez, adiskidetasunera heltzen dira.

Elkarrizketa:

- HARMONIA
 - Aita 1: orain lasaiago dagoela... opor batzuk eskertuko lirateke.
 - Aita 2: hondartzan?
 - Aita 1: bai, enpresan hartu ditzazkezu egun batzuk, ez?
 - Aita 2: noski, orain duen gorakadarekin gainera...
- EZTABAIDA
 - Umea (negarrez)
 - Aita 1: joango zara zu?
 - Aita 2: oso nekatuta nago, gaur ezin zen zaintzailea etorri?
 - Aita 1: ni altxatzen naiz azkenaldian beti...
 - Aita 2: puff, beti berdinarekin.
 - Aita 1: eta zu alper paperean!
 - Aita 2: berriro hasi behar dugu?!
- ADISKIDETZEA
 - Aita 1: barkatu aurrekoagatik, urduritzen naizenean ez dizut oso ongi hitz egiten...
 - Aita 2: lasai lasai, berriro hasiko gara?

- Aita1: hurrengoa hondartzan, bai?

Inguru-zarata: musika eta haurraren negarra.

3. ESZENA

Familia mota: aiton- amonen zaintzapeko familia

Idea: eszena honetan, aiton-amonek zaintzen duten familia baten egunerokoa aurkezten da. Hasieran, giro lasaia nagusi da, baina, baretasun hori diru sarrera eskasengatik eteten da; izan ere, aitonaren ustez, gazteek ez dute nahikoa ekarpen egiten etxeko arduretan. Bilobak, sentimenduak gainezka dituelarik, eztanda egiten du. Bi aldeek arduren banaketari eta errukiari buruzko elkarriketa sutua bizi dute. Azkenean, adiskidetzea irudikatzen da: familiako kide guztiak elkarrekin eseri eta *western* pelikula bat ikusten dute, presentzia partekatzearen balioa azpimarratuz.

Elkarriketa:

- HARMONIA
 - Inguru-zarata: telebista eta bidio jokoa.
- EZTABAIDA
 - Aitona: gaur egungo gazteak... Maribel... ez dute ezer egiten.
 - Maribel: ostras aitona! Ikusi beharko zenituen nire lagunak, horiek bai ez dutela ezer egiten.
 - Aitona: ez gara iritsiko hilabete bukaerara ez baduzu gehiago egiten.
 - Maribel: buuufff... beti berdin, ardura guztia niretzat, ez da nire errua!
 - Aitona: errua zerena?
- ADISKIDETZEA
 - Inguru-zarata: denak telebista ikusten.

4. Gure azkeneko galdera:

- Zein da eredurik egokiena?
 - Ez dago eredu zuzenik!